

2014
2015

LEHEN HEZKUNTZA BIGARREN ZIKLOA

Janaria ez da bota behar

OTOITZAK



Kalean bizi diren haurren alde

MOTIBAZIOA

Herrialde askotan, kalean bizi diren haurrak daude. Gu bezalako neska-mutikoak dira, baina ez dute maite izan dituen familia bat izan, edo kalera bidaltzen dituzte diru eske, edo gurasoek ezin dituzte zaindu, drogazaleak edo alkoholikoak direlako edo delinkuenteak direlako. Haur askok sufritu egiten dute, inork ez dielako nahikoa maitasun eman. Inork ez die janaria prestatzen, inork ez die arropa prestatzen, inork ez die behar dutena erosten, inork ez die gauean gabon esaten eta muxu ematen. Kaleko haurrak dira. Ikusi al dituzu inoiz telebistan? Haien alde egingo dugu gaur otoitz, gure samurtasuna eta solidaritatea adieraziko diegu, maitasuna eta laguntza haiengana iristeko.



JESUSEN HITZA



Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok: hartazue munduaren sortzetik zuentzat prestatua dagoen erreinua. Gose bainintzen eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixo, eta bisitatu; kartzelan, eta ikustera etorri. (Mt 25, 34-36)

OTOITZA:

Jesus, ene adiskide ona,
kalean bizi diren haur guztien alde eskatu nahi dizut gaur.
Bakarrik, abandonatuta eta babesik gabe daude.
Ez dute zaindu eta maite dituzten gurasorik.
Lagundu zure aurpegia ikusten sufritzen ari den haur bakoitzean, eta erakutsi solidario izaten.
Lagun diezaieket eta lagundu egin nahi diet.
Ez dut axolagabekeria bizi nahi.
Eman indarra zurea bezalako maitasun handia bizitzeko.
Nire hitzak ez ditzala haizeak eraman, erakutsi benetan maitatzen.
Eskerrik asko egunero ematen didazun guztiagatik.



Zuk bezalaxe maitatzea

MOTIBAZIOA

Jesus apostoluei agur esaten ari zenean, inoiz ahaztu behar ez zituzten gauza garrantzitsuak esan zizkien. Bere jarraitzaile izan nahi zuten guztientzako agindu garrantzitsuena hau dela esan zien: NIK MAITATU ZAITUZTEDAN BEZALA, MAITATU ZUEK ERE ELKAR.

Jesusek maite gaituen bezala maite dugu guk ere. Nola maite gaitu Jesusek? Eskuzabaltasunez maite gaitu, hau da, guk maite aurretik edo trukean ezer eman gabe maite gaitu. Beti maite gaitu, egiten duguna egiten dugula, gure bihotza ondo ezagutzen duelako eta barkatu egiten gaituelako. Asko maite gaitu, beste inork baino gehiago, onenak ez izan arren. Horrela nahi du Jesusek guk ere elkar maitatzea, ezagutzen ditugun pertsona guztiak maitatzea: desberdinak izan arren, batzuetan hanka sartu arren, haiek gu ez maitatu arren. BERAK MAITE IZAN ZUEN BEZALA MAITATZEA zeinen garrantzitsua den erakusteko eskatuko diogu Jesusi.

- Zer egiten duzu Jesusek bezala maitatzeko?
- Nola laguntzen duzu etxean?
- Eskuzabala zara?

OTOITZA

Jesus adiskide hori,
hazi egin behar dut, eta besteak gehiago maitatu.
Badakit emateko gauza on asko ditudala.
Erakutsi gauza horiek besteei eskaintzen.
Etxean eta ikastetxean lagundu behar dut,
eta ikaskideei eskua luzatu behar diet,
erakutsi beti eta edonon laguntzen.
Maitasuna baita gauzarik handiena, Jauna,
eta maitasunez betetako bihotza
oso kontuan izaten duzu zuk.
Zuk bezala bizi nahi dut, besteak maitatuz.



Besteekin partekatzea maitatzea da

MOTIBAZIOA

Jesus tenplutik gertu zegoen goiz batean; apostoluekin eta adiskideekin eserita zegoen, eta norberaren buruan soilik pentsatzen ez bizitzea Jainkoarentzat zeinen garrantzitsua den esaten ari zitzairen. Adineko emakume bat, alarguna zena, tenpluko limosna-ontzira hurbildu zen (emakume alargunek ez zuten dirurik, eta bizitzeko zerbait jasotzen zuten). Bihotz oneko emakumeak balio gutxiko txanpon bat bota zuen ontzira. Ez zen diru asko, baina egun horretan jateko zuen ia guztia zen. Emakumeak, bizitzeko gutxiago izango zuen arren, berak baino gutxiago zuten beste pertsona batzuekin banatu nahi izan zuen. Jesusek garrantzitsua hori zela esan zien ikasleei: bakoitzak duenetik ematea, ez itxarotea asko izan arte emateko. Zer esan nahi dizu gaur Jesusek hitz honekin? Zer egin behar duzu?

- Besteekin banatzen duzu? Nola? Noiz?
- Duzunetik ematen duzu, edo sobera duzunetik?
- Besteentzako zerbitzuren bat egiten duzu?



OTOITZA

Jauna, beharbada ez dut emateko gauza asko izango, baina dohain asko jaso ditut besteekin partekatzeko. Erakutsi neurekoia ez izaten, lehendabizi besteengan pentsatzen eta dudana pozik banatzen. Erakutsi naizena eta dudana partekatzen. Ez utzi nire gauzei lotzen eta gordetzen, besteei eskaintzen ikasi nahi dut, guztiek izan dezaten nik jaso dudana erabiltzeko aukera. Emateko asko daukat, eta daukadana ugaritu egingo da, besteekin banatzen badut. Jesus, aldatu nire bihotza, eta lagundu dudana besteekin partekatzen, ematen jaso egiten baita, eta partekatzean gure bihotzean zaudela jabetzen baikara.



Eskuak zabalik beti

IPUINA: TXORITXOA ETA SUTEA

Behin sute bat gertatu zen oihanean. Oihaneko biztanleak asko larritu ziren. Suak zuhaitzak eta baso ederrak suntsituko zituen. Zer egin zezaketen? Txoritxo triste bat ibairantz abiatu zen, uretan sartu zen eta sugarren gainera abiatu zen gero hegan, lumetan eramaten zituen ur-tantekin sua itzali nahian. Makina bat aldiz joan zen ibaira, sua itzaltzeko ahaleginean.

Orduan, azeri batek esan zion: zertan ari zara? Zure lumetan jasotako tanta txiki horiekin sute handi hau itzaliko duzula uste duzu ala?

Txoritxoak honela erantzun zion: badakit nire laguntza oso txikia dela su handi honen aurrean. Baina horixe da egin dezakedan guztia. Horrela, behintzat, badakit egin beharrekoa egiten ari naizela. Guztiok sua itzaltzeko gure esku dagoena egin izan bagenu, garrak itzalita egongo lirateke jada. Eta lanera itzuli zen berriro.

- Zure ustez, zein da ipuin honen mezua?
- Zer baitetan laguntzen duzu? Zertan? Nola?



GOGOETA

Gauza bat esango dizut: natura gero eta gaixoago dago, baina gu gara gaixotasun horren eragileak. Zergatik?:

- Papera egiteko zuhaitz asko mozten ditugu, eta birzikla daitekeen paper asko alferrik botatzen dugu.
- Airea kutsatzen duten tresna asko erabiltzen dugu, autoek eta fabrikek ere airea kutsatzen dute, eta tresnak eta autoak gutxiago erabil ditzakegu, edo kutsatzen ez duten fabrikak sortu, baina ez dugu halakorik egiten.
- Zaborrontziak ez ditugu ondo erabiltzen, gauzak lurrera botatzen ditugu eta dena zikintzen dugu.



OTOITZA

Lagundu egin nahi dut, Jesus,
guztiontzat mundu osasuntsuagoa egin nahi dut.
Bakoitzak bere ur-tanta jarriko duen mundu bat,
natura ez kutsatzeko edo zikintzeko.

Lagundu egin nahi dut, Jesus,
arduraz jokatzuz, birziklatzen ikasiz,
zaborrontziak modu egokian erabiliz,
jolastokia garbi izanez.

Lagundu egin nahi dut, Jesus.
Nire ur-tanta jarri nahi dut,
indarkeriaren sutea itzaltzeko,
gerrarena, gorrotoarena, geurekoikeriarena...



Justiziaren alde

MOTIBAZIOA

Jesusek esaten zigun mundu honetan mundu desberdin bat eraikitzeko lan egin behar dugula, aberatsik eta pobrerik edo pribilegiaturik eta bazterturik egongo ez den mundu bat eraikitzeko; bidegabekeriarik gabeko mundu bat. Berak Jainkoaren Erreinu deitzen zion. Erreinu hori justiziarekin zerikusia duten jarrerak bizi ditugun heinean eraikitzen da.



OTOITZA

- Mundu baketsua eraiki nahi dugu. Liskarrik ez izaten eta eztabaidatu beharrean hitz egiten saiatuko gara. LAGUNDU, JESUS.
- Mundu solidarioa eraiki nahi dugu. Behar ez ditugun gauzetan hainbeste ez gastatzen eta gu baino gutxiago dutenekin partekatzen saiatuko gara. LAGUNDU, JESUS.
- Senidetasunean oinarritutako mundua eraiki nahi dugu. Inor bere itxuragatik edo fisikoagatik ez epaitzen eta etiketarik jarri gabe hurbiltzen saiatuko gara. LAGUNDU, JESUS.
- Justizian oinarritutako mundua eraiki nahi dugu. Besteez probetxu ez ateratzen eta gure hitz eta ekintzekin minik ez egiten saiatuko gara. LAGUNDU, JESUS.
- Mundu bidezkoa eraiki nahi dugu. Modu bidegabean jokatzeko duten eta bidegabekeriak bultzatzen dituzten pertsonekin eta erakundeekin lanik ez egiten saiatuko gara. LAGUNDU, JESUS.
- Senidetasunean oinarritutako mundua eraiki nahi dugu. Guztiak maitatzen saiatuko gara, guztiak anaia-arrebak garelako, maite gaituen Aita beraren seme-alabak. LAGUNDU, JESUS.
- Mundu solidarioa eraiki nahi dugu. Gure ikastetxean eta hirian beste batzuei laguntzeko antolatzen diren jardueretan parte hartzen saiatuko gara. LAGUNDU, JESUS.



Zuhaitza eta hostoa



IPUINA

Bazen behin zuhaitz zahar bat, eskarmentu handikoa. Zuhaitzak hosto berde bat zuen, jaiotza berria, haizearekin batera eta bestera zebilena. Zuhaitz mardulak bere izerdiarekin elikatzen zuen, eta hostoa oso gustura eta pozik zegoen. Egun batean, haizeak, ferekatuz, honela esan zion: "Zer egiten duzu enbor horri lotuta, horren ederra izanik? Nahi al duzu nirekin etorri? Airean dantza egiten erakutsiko dizut, eta aske izango zara". Zuhaitzak berarengandik ez askatzeko aholkatu zion hostoari. Baina hostoak haizeari jarraitu zion. Zuhaitzetik askatu eta dantza egin zuen airean. Baina dantza maldan beherakoa zela jabetu zenean, beranduegi zen. Lokatsetara erori zen eta lehortu egin zen.

GOGOETA:

Zer iruditu zaizue? Hostoak buruargitasunez jokatu zuen, edo inozoa izan zen? ... Zergatik izan zen inozoa?... (Ez ziolako zuhaitz jakintsuari entzun). Zuhaitzean gelditu izan balitz, zer gertatuko litzaiok? Hobe izango zuen haizearen aholkuari ez jarraitu. Dantza egitea gauza ona da. Baina, okerrena... (zuhaitzetik askatzea izan zen).

Galdera:

Mundu bidezkoa eta solidarioa egiteko, zer balio ez ditugu baztertu behar?

OTOITZA

Jesus maitea:
Zure balioak izan nahi ditut eta zure ondoan egon nahi dut.
Errukiorra izan nahi dut eta sufritzen dutenei lagundu.
Samariar ona bezalakoa izan nahi dut,
bidean botata zegoenaren eta laguntza behar zuenaren
lagun hurko egin zena bezalakoa.

Eman kontsolamendua, laguntasuna eta edozein motatako laguntza behar dutenengana hurbiltzeko adorea.

Busti nire bihotza samariar onaren espirituz,
besteei nire esku irekiak eskaintzeko beti.

Ez diezaiodala inoiz nire anaia-arreben minari axolagabekeriak begiratu, ez nadila axolagabea izan sufrimenduaren aurrean.
Jesus, eman indarra guztiei lagunduz bizitzeko.

Bizi nadila beti zure balioekin,
justizia, bakea eta elkartasuna mundu honentzat, eskuzabaltasunez partekatuz,
beti besteentzat bizitzen.

